## NEKAZARITZA ETA ARRANTZU SAILA

2533

Azaroaren 4eko 241/1986 DEKRETUA, apirilaren 2ko 94/1985 Dekretuaren arauera Nekazaritza eta Arrantzu sailari dagozkion egitekoen jarduna, Arabako Foru Diputazio T.G.-ari delegatuz.

Euskal Herriko Autonomia Estatutoko 10.27 artikuluak, Autonomia Elkarteak, Estatuarekin lankidetzan, Jatorrizko Izenari buruz duen konpetentzia esklusiboa ezartzen du.

Bestalde, Autonomia Elkarte Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanen Legeko 7.b.1 artikuluak, Mahastizaintza eta Enologia gaietan Elkarte Osorako Erakundeek emandako arauak garatzea eta gauzatzea Foru Organo horiei dagokiela agintzen du. Horrek dakar, apirilaren 2ko 94/1985 Dekretua erabiltzetik sortutako funtzioak betetzeko, Nekazaritza eta Arrantzu Sailak dituen baino baliabide egokiagoak Arabako Foru Diputazio T.G.-ak edukitzea.

Hori horrela, Arabako Foru Diputazio T. G.-arekin bat, Autonomia Elkarte Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanen Legeko 13. artikuluan oinarrituz, Nekazaritza eta Arrantzu Sailburuaren proposamenez eta Gobernu-Kontseiluak 1986.eko Azaroaren 4eko bere bileran aztertu ondoren, zera

ERABAKITZEN DUT:

*1. Artikulua.*– 94/1985 Dekretuaren arauera Nekazaritza eta Arrantzu Sailari dagozkion egitekoen jarduna, eperik gabeko moduan eta indargabetzen ez den bitartean, Arabako Foru Diputazio T.G.-ari delegatzen zaio.

*2. Artikulua.*– Autonomia Elkarte Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanen Legeko 13. artikuluan esandako mugen barruan gauzatzen da delegazio hau, aipatutako artikuluko 2. zenbakian ezarritako ahalmenak, Jaurlaritzak beretzat gordetzen dituela.

AZKEN ERABAKIA

Dekretu honek, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin egunean hartuko du indarra.

Gasteiz, 1986.eko azaroak 4.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Nekazaritza eta Arrantzu Sailburua,
FELIX ORMAZABAL ASCASIBAR.

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

2533

DECRETO 241/1986 de 4 de noviembre, por el que se delega en la Excma. Diputación Foral de Alava el ejercicio de las funciones que corresponden al Departamento de Agricultura y Pesca según el Decreto 94/1985 de 2 de abril.

El artículo 10.27 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco establece la competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma en materia de Denominaciones de Origen en colaboración con el Estado.

Por otra parte, el artículo 7º, b.1 de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Organos Forales de los Territorios Históricos, establece que corresponde a estos últimos el desarrollo y ejecución de las normas emanadas de las Instituciones Comunes en materia de Viticultura y Enología. Ello hace que la Excma. Diputación Foral de Alava cuente con medios más apropiados que el Departamento de Agricultura y Pesca para el ejercicio de las - funciones derivadas de la aplicación del Decreto 94/1985 de 2 de abril.

Por todo lo expuesto, de acuerdo con la Excma. Diputación Foral de Alava y en base al artículo 13 de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Organos Forales de sus Territorios Históricos, a propuesta del Consejero de Agricultura y Pesca, previa deliberación por el Consejo de Gobierno en su reunión de 4 de noviembre de 1986.

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Se delega en la Excma. Diputación Foral de Alava el ejercicio de las funciones que según el Decreto 94/1985 - corresponden al Departamento de Agricultura y Pesca, de forma indefinida hasta que se proceda a su revocación.

*Artículo 2.*– La presente delegación se efectúa en los términos contemplados en el artículo 13º de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Organos Forales de sus Territorios Históricos, reservándose el Gobierno las facultades establecidas en el nº 2 del citado artículo.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de Noviembre de 1986.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
FELIX ORMAZABAL ASCASIBAR.